


## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Ordenagailuak, irakasleak, dedikazioa, motibazioa... Hori guztia eta gehiago behar dugu gure enpresarentzat; azken batean, baliabideak, beste edozein enpresak bezala. Eta baliabide hauek beharrezkoak dira eskaintzen ditugun zerbitzuen ekoizpena aurrera eraman ahal izateko. Horregatik, garrantzitsua da horiek ezagutzea eta zehaztea, eta hiru atal hauetan egingo dugu:

- **Baliabide fisikoak** → online akademia izan arren, lokal txiki bat izango dugu elkartzeko, grabazio puntualak egiteko (esate baterako, sarrerako bideoa, non proiektu honetako partaideak aurkeztuko garen eta zergatik garen garrantzitsuak azalduko dugun) edo lokalaraen kontuak leku lasai batean egiteko. Lokalaz gain, ordenagailuak eta argiak ere erosiko ditugu irakasleentzat (bideoetarako argi ona izango dute une oro eta ordenagailuak erabilgarriak izango dira errazteko komunikazioa ikasleen eta irakasleen artean. Ere bai, informazioa jartzeko gure plataforman ordenagailuen bidez askoz errazagoa izango litzateke). Jakina, arbelak eta boligrafoak ere izango ditugu haietan idazteko eta marrazteko.



Azkenik, irakasleei emango diegun prestakuntzan, ikasturtean zehar emango diren gai guztiak azalduko ditugu; aitzitik, printzipioz ez dugu testulibururik izango. Informazio gehiago nahi izanez gero, Interneten begiratu beharko dutela azalduko diegu, edota unibertsitateetako liburutegietara joan beharko dutela (EHUra, adibidez, asteburuetan joan daitezke). Aldiz, liburutegi propioa eskatzen bada, bigarren eskuko testuliburuak erosiko dira.



- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak** → gutako bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horrek aurrera egiten laguntzen digu. Arene eta Ane komunikatzaile onak dira, salmentetarako ezaugarri interesgarria dena. Orduan, harremenek sare soziala eta bezeroekin izango dituzte. Iratik sormena duenez, ideia asko eskaintzen ditu. Ondorioz, Iratik zuzendaritza postuan egongo litzateke. Erabakiak hartzeko trebetasuna ere beharrezkoa da, Arenek bereziki duen ezaugarria. Azkenik, Eiderrek zenbakien trebetasuna du, kontuetarako ezaugarri garrantzitsua. Horren ondorioz, Eiderrek kontabilitate araua eramango luke. Berriz, denok partekatzen dugun zerbait dago, eta hori motibazioa da, irakasleei eta ikasleei helarazi nahi dieguna. Horregatik, motibazioa baldintza bat da, gurekin parte hartzen duten kideentzat eskatzen duguna.



- **Finantza-baliabideak** → Proiekturako aurrezturako diruaz gain, kreditu bat beharko da.

Guztia ikusita, bakoitzak aportazio monetario bat egin beharko dugu. Gure kostu egitura ikusita, gutxi gorabehera 200.000 euro behar izango ditugu lehenengo urtean. Ondorioz, bakoitzak 55 mila euro jarriko ditugu. Arazo bat izatekotan soberako diru gutxi bat izan dezagun konpontzeko.

Bakoitzak jarriko duen kapitala legeak eskatzen duen gutxienezko bario handiagoa denez, erabaki dugu gure proiektuaren forma juridikoa erantzukizun mugatuko sozietatea izatea.